

## GOROZIKATIK LIMARA (Aita Pioren oroipenez)

Denboraren lorratzean atzerantz begiraturik, Gorozikako seme jator baten irudia agertzen jaku. Aita Pio Santa Teresarena eritxon Karmeldarren artean. Munduan, Felipe Etxebarria Alakano. 1898ko apirilaren 11n jaio zan Bizkaiko Gorozikan, Bizkargi ondoan; Zugaztietatik Zornotzarantz goazela, Autzagane-ko aldatsa hasita laster dagoan herritxoan. Ehun urte igaro dira ha sortu zanetik. Hori dala-eta omenaldi gozo bat egitekotan dira haren herritarrak. *Karmel* aldizkariak be bat egin nahi leu-ke horretan; haren oroipena gaurkotu eta esker ona agertu karmeldar idazle maitagamiari. Izan be, aldizkari honen aurretiko-koa zan *Karmengo Argiaren* idazle eta zuzendari izana dogu.

Euskal letretan bere markatxoa itzi eban; ez da izar argitsue-  
tarikoa, baina bai euskal idazleen artean bere lekutxoa merezi  
dauana. Aurreko belaunaldikoei entzunda dakigu haren barri.  
Nik neuk Santi Onaindiak prestatuturiko liburutxo baten irakurri  
neban lehenengoz. "Goi-zale" deritxo liburutxoak eta otoitzak,  
Kristoren Antz-Bidea eta eraspenak dakarz. Liburuaren muina,  
hirugarrenez argia ikusten eban Aita Pioren Kristoren Antz-Bi-  
dea da. Lehenengo argitaraldi biak Zornotzan egin ziran, "Jaun-  
goiko-Zale"ren irarkolan; 1926an lehenengoz, 1936an bigarre-  
nez. Hirugarren hau, barriz, Gasteizen egina da, "Karmeldar  
Idaztiak" edo "Ediciones El Carmen" dalakoan, 1956an; esan  
dogunez, Santi Onaindiaren eranskin eta ikutu txiki batzuekin.

"Aita Pi" irakurri nebanean, ze izen modu ete zan hori nerabilen neure artean. Txori-kantaren bat edo emoten eban. Hain izen laburrik ez neban ordurarte entzun. Gerra aurrekoak "Pio" izena, euskeraz "Pi" esaten ebela jakin neban gero. Orduko ohiturari jarraituz, "Pi Aba" erabilen bere idazkietan. Gorputz txikiko izena, baina nortasun handiko gizona...

### **Karmeldar izateko bidean**

Aldi haretan, gure herrietan eta batez be baserrietan, erlijioak toki handia eukan. Familia handiak ziran. Hiru belau-naidi edo alkartzen ziran bakotxean. Etxe bete jende; umeak batez be asko... Bizimodu erosorik ez zan orduan; umeen artean be esku-erakutsi eta koplak gitxi, baina berotasuna, bizitasuna eta poztasuna bai. Egoanagaz konfome bizi izaten ikasten zan txiki-txikitarik. Sutondoko laratzu inguruan, ipuinak, pasadizoak, kanta zaharrak, bertsoak eta errezuak berezko iturria cuken. Holako ingurumarian errez zan bat edo bik seminario edo komenturako bidea hartzea. "Bokazinoa" esaten dan horren ernamuina agertzeko giro aproposa zan, kontizu. Gure Felipe Etxebarria, geroko Aita Pio be holantxe jarriko zan karmeldar izatekotan. Lehenengotan ume-ames antzerá erne jakon barruko eragin horri erantzutera jarriko zan; eta geroago, kontrako indarren atezuan bata edo bestea aukeratu beharrean, beren-beregi egingo eban haretara, kristauok sinisten dogunez, Jainkoaren graziak eta fedea eraginda.

Larreko ikastetxean lehenengo ikasketak egin ondoren, Larrea bertako nobiziaduan sartu zan. 1914ko uztailearen 6an hartu eban abitua eta handik urtebetera, 1915eko uztailearen 7an, egin eban profesá. Gero Ordenak horretarako zituan ikastetxetan (Gasteizen eta Begoñan) filosofia eta teologiako ikasketak amaiturik, 1922ko irailaren 17an egin zan abade; urte eta hil bereko 21ean kantatu eban meza barria bere eta inguruko guztien poz betean.

Ordenako nagusiak Perura bialtzen dabe. 1923ko abuztuaren 31n heltzen da hara. Peruko lurraldeak ondo jakingo dau haren ahalegin eta apostolu-lanaren barri; isilekoa eta ezkutua izan arren, ez meritu txikiagokoa. Chicama Haranean emon zituan bere onentxo-enak, Chocope-ko karmeldarren egoitzako nagusi izendatua izan zan-eta. Baina urterik gehienak Casa Grande-ko kapilau-karguan emon zituan; zortzi urte baino gehiago aldi bitan, bien bitartean Euskal Herrian bizi izan zan eta.



*Pio karmeldarra,  
Felipe bere anaia frantziskotarrarekin.*

### **Karmengo Argiaren zuzendari**

1932ko urtea azkenetan zala, Euskal Herrira bihurtu zan; aldikadatxo bat hemen egin eta barriro Perura joatekotan, dirudienez. Baina Karmeldarren Probintziako kapitulua egin zan handik laster eta Aita Piori Zornotzan geratzeko agindua emon eutsen. *Karmengo Argia* euskal aldizkariaren zuzendari izen-

datu eban eta era berean hango karmeldar ikastetxeko irakasle. Aita Pio euskaltzaletasun garrari, Peruko lurralde zabaletan egoala be, bizi-bizi eutsi eutsan eta handik hainbat lantxo bialtzen zituan aldizkarian argitaratzeko. Horregaitik emongo eutsen, beharbada, ardura hori. Isil-isilik eta fin beteko eban zeregin barria, berak ohi ebanez. Hurrengo hiru urteetarako Markinako komentuko prioreorde aukeratzen dabe, baina ez eban horretan luze iraungo, gerrea hasi zan-eta. Beraz, Markinan zan gerrate odoltsu horren sua biztu zanean.

Santi Onaindiak dinoskunez, gerra-zalaparta artean, behin Aita Pio bere etxean zan, Gorozikan. "An nintzan ni ere, guda-rien kapillau, ta 1937-430ean gabeko amaikak inguruan, guda-oiñak ur-ur zeudela-ta, Gorozika utzi ta Larreara etortzen lagundu nion: ez nuen nik gehiago ifion ikusi"...

### **Atzerrita, arerioengandik ihesi**

Gauzak geroago eta itxura txarragoa hartuaz joiazan. Bestalde, militarrek Bizkaian ez ebela bape asmo onik eta, alde egitea erabagi eban. Lagun batzuek, hainbestearainokoa ez zala-eta, burutik kendu nahi izan eutsen asmo hori, baina bera ezezkoan egoan eta Santander alderantz jo eban beste karmeldar lagun birekin; Plazido Astobiza, Zornotzako Eubako semea zan bata eta Urbano Manzisidor, Lemoako semea bestea. Santanderren oso txarto hartuak izan ziran. Gehiago oraindino: konfinatu be egin zituen, baina Eusko Jaurlearitzako enplegatuak, haren pasaportea euken aldean-eta, Frantziarako itsasontzia hartu egieñ lortu eban. Ingalaterrako beste baten sartzeko itsasontzitik urtetean, tiro-hotsa entzun eban eta harriturik geratu ziran Aita Plazidoren arintasunaz, bere herren eta guzti bat-batean bere burua lurrera botaten ikusita... Santanderren harrera txarra egin baeutsen, Frantzian askoz be txarragoa; egia esan, hango komunitadeak hartu be ez zituen egin, ordurako abade "gorriak" zirala zabaldurik egoan eta... Frantziako gobernu sozialistak, handikorik hortikora eta non gorderik ez eukela ikusirik, Belgikarako bidean jarri zituen trenez.

Flandesera joan ziran, karmeldar fraidegaien ikastetxe batera. Hemen urtebetean-edo egon ziran, hizkuntz-eskolara joanaz eta komunidadeko bizitzan esku hartuaz.

### **Barrero Ameriketara**

Agur egiteko ordua heldu zanean, hain harrera eta ostatu gozoagaitik eskerrak emoteko unean, Flandesko nagusiak, gauzatxo bat ahaztu jakola eta, aputxo baten egoteko esan eutsen. Paper bat eskuetan ekarrela bihurtu zan; zer izango eta... harriturik ikusi eben Burgosko Gotzainak euren aurka jaurti eta gero balio barik itzitako eskumikua zala... Ea zergaitik ez eutsen lehenago esan. Eta nagusiak erantzun: hain giza-jotxo ikusi zaituet, pekatuak txikiak be jakinaren gainean egiteko gai ez zariela, ezen ez zinduedazan gehiago atsekabetu nahi izan, orain arte be erbestera joan beharrez ederrak jasan dozuez-eta.

Aita Hermenegildo Manzisidorrek, Aita Urbanoren anaiak, Ameriketara joan eitezan gauza guztiak bideratu zituan, baita itsasontziko gastuak ordaindu be. Hara heldu ziraneko, lekuak izendatu eutsezan hirurei: Urbano Txilera bialdu eben eta Pio eta Plazido Perura. Perun Casa Grande-rako destinoa emon cutsen. Geroago, Lloc-eko San Pedroko nagusi izendatu eben. Oraingoan ez zan izango han luzaroko. Handik laster Kolonbiako Leiva-ra bialduko dabe, han sortu barri dan nobiziaduan nobizioen maisu izateko. Kargu hau beti izan ohi da kontu handikoa. Hemen egoala min handiak zituan-eta, zer izango ete zan, medikuak ikustea nahi izan eben. Barrualdea ikusi eta ebakuntzarik egin barik, barrero itxi... Urdaila bizienak hartuta eukan, zorritzarez. Ez egoan zer eginik, gatxa aurreratuta eukan-eta. Liman bizi zan haren anaia Jose Etxebarria frantziskotarrak, hori jakin ebanean, ahaleginak egin zituan Limara erroteko, eta baita lortu be. Colligue klinikan sartu eben eta jende asko joan ohi jakon bisitatzer. Leonardo Jose Ballón Rodríguez, Limako Gotzain laguntzaile frantziskotarrak maite-maite eban. Santutzat eukan, beste askok lez. Lekaima Karmeldar

Misiolariak ondo baino hobeto zainduta egoan eta 1945eko otsailaren 9an hil zan bake-bakean eta fede betean Jainkoaren nahia onartuaz.

### **Euskal idazle**

Halako egoeran bizi izateko, asko idatzi eban. Ikusten denez, euskaltzale fina zan. Ia beti gai espiritualak edo debozinozkoak erabili ohi zituan. *Karmengo Argia* aldizkarian, 1931tik 1936ra bitartean, 44 edo 45 idazlan agertzen dira "Pi Aba" sinaduraz datozenak. Beste hamaika idazlan datoz "Asua" sinaduraz, eta bibliografia egin dauanak holan jarten dau: "Asua [Pio Etxebarria?]".

Aita Piok debozinozko liburu klasiko batzuen itzulpenak be egin zituan; esaterako, *Kristoren Antz-Bidea*, Kempis-en "La Imitación de Cristo" dalakoaren itzulpena. Aita Granada-ren *Símbolo de la Fe* eta San Frantzisko Saleskoaren beste lan espiritualen bat be itzuli zituan. Baina *Karmengo Argia*-ko idazlanez gainera, Aita Pioren izena apur bat zabaltzen lagundu ebana *Kristoren Antz-Bidea* izan da. Gorago esan dogunez, hiru bider argitaratu izan da.

Une gaxtetan eta atzerrian be euskaltzale eta langile fin iraun eban Gorozikako seme argiaren oroimenak iraun begi gure artean orain eta beti.

*Luis Baraiazarra*